

OROZKO - IBARRA



Orain, amaika amabi urteren hatzuk, Santageda-aurre-egunean, edo obeto, aurre gauean Orozko-Ibarra Etxe-artean txarkeri ikaragarri bat sortu zan.

Ixil-ixillik, ezertxu be esanez, barruko lotsa ta miiñez, igaro bearko dogula jazokun txar, madarikatu ori?... Ezta au nire eretxial... Ni neuk ustc dot Euskal Erriaren ixen onagaitik zabalkunde berarizko bat emotea aldizkari "ZER" onetan guztiz egoki dala, danok jakin dagien, argi ta garbi, bein eta betiko, orrelango gizadiaren kontrako gaiztakeriak gorroto, amurru itzal aundiena artu bear dabela, lenengo, kristiñau onak garealako, ta gero, baita be, gizakume onezkoak. Ez, ezelan be, iñoiz beez, asko zirean txarkeri ikaragarri a egin ebenak gure dabena: ixil-ixillik, baretasun gorrotogarriz igaro daitela.

Eurok esango deuskue, bear bada, Gure erantzuna legegizonena izango litzake. Erru-txarkeri, gaiztaegile, nortasun (personal) oker eta oker egiazko edo izana.

Oker gaiztaegilleari parkatu egin bear yako. Baiña okerkeri egiazkoa bera zigortu bear da. Ori ezpaleuke egiten, gizadia ezin izan, bizi leiteke. Orrez ganera, parkamen ta adiskidetasunak bearkuntza daukie, psiko-lojizta lojikaz parkamen egonez.

Nik emen ikusten dot gauza oargarri bat: Aldundegiak Aurelio Letona'ri emon ba'deutso Baso-Zaindari zeregiña, ta beronengan usteona ebalako (bere aititaren anaia, D. Bartolom de Letona, Deustu-Bilbo'ko Alkatea gizaldi onen asikeran birri-tan izan zan). Zegaitik, diñot, ain luzaro epaia igaro izan zan, azkenez mordo-llotu, korapillatu itxiteko. Zergaitik ez eban arpegia agertu? ta esan au edo ori..., ta ez mutu baten antzera geratu...

Jaurlaritzako Ertzaiñak, Langille ta Bizkorrak, dandana argi ta garbi egin ta itxita, barri-ro diñot, Gure Bizkai'ko Aldundegiak, zergaitik aren lana ez eban onartuko beintzat?...

Emen guk orain Bizkai-Lurralde guztiko ta baita Euskalerrri Zabal aren izenean Letona'tar Aurelio'ri eriotz gogorra egin eutsenai aolku bat: Ezagutu egizue zeuen errua... eta olan, urte batzuk geroago etorriko yatsue Euzkadiko kristiñauen parkamen osoa. Ori egin izan ba'zenduen lenengotik, orain aske ta ardura barik egongo ziñien.

LETONA'K